



EBALUAZIO  
DIAGNOSTIKOA

EUSKO JAURLARITZA



GOBIERNO VASCO

HEZKUNTZA, UNIBERTSITATE  
ETA IKERKETA SAILA

DEPARTAMENTO DE EDUCACIÓN,  
UNIVERSIDADES E INVESTIGACIÓN



# KONPETENTZIA MAILAK EBALUAZIO DIAGNOSTIKOAN

DERRIGORREZKO BIGARREN HEZKUNTZAKO 2. MAILA

2009



<b>1. SARRERA</b> .....	5
<b>2. ZER DIRA KONPETENTZIA MAILAK?</b> .....	9
<b>3. NOLA FINKATZEN DIRA KONPETENTZIA MAILAK?</b> .....	15
<b>4. KONPETENTZIA MAILAK 2008-2009 IKASTURTEAN EBALUATUTAKO OINARRIZKO KONPETENTZIETAN</b> .....	21
<b>4.1. Hizkuntza-komunikaziorako konpetentzia euskaraz</b> .....	23
4.1.1. Ikasleen banaketa konpetentzia mailen arabera dimentsio ezberdinetan .....	24
4.1.2. Euskarazko hizkuntza-komunikaziorako konpetentziaren Derrigorrezko Bigarren Hezkuntzako 2. mailako konpetentzia mailen deskribapena .....	25
4.1.3. Dimentsioetako adierazleak Derrigorrezko Bigarren Hezkuntzako 2. mailako konpetentzia maila bakoitzean .....	26
4.1.4. Item liberatuen adibideak .....	29
<b>4.2. Hizkuntza-komunikaziorako konpetentzia gaztelaniaz</b> .....	48
4.2.1. Ikasleen banaketa konpetentzia mailen arabera dimentsio ezberdinetan .....	48
4.2.2. Gaztelaniazko hizkuntza-komunikaziorako konpetentziaren Derrigorrezko Bigarren Hezkuntzako 2. mailako konpetentzia mailen deskribapena .....	49
4.2.3. Dimentsioetako adierazleak Derrigorrezko Bigarren Hezkuntzako 2. mailako konpetentzia maila bakoitzean .....	51
4.2.4. Item liberatuen adibideak .....	54
<b>4.3. Matematikarako konpetentzia</b> .....	73
4.3.1. Ikasleen banaketa konpetentzia mailen arabera .....	73
4.3.2. Matematikarako konpetentziaren Derrigorrezko Bigarren Hezkuntzako 2. mailako konpetentzia mailen deskribapena .....	74
4.3.3. Dimentsioetako adierazleak Derrigorrezko Bigarren Hezkuntzako 2. mailako konpetentzia maila bakoitzean .....	76
4.3.4. Item liberatuen adibideak .....	77
<b>4.4. Zientzia-, teknologia- eta osasun-kulturarako konpetentzia</b> .....	82
4.4.1. Ikasleen banaketa konpetentzia mailen arabera .....	82

4.4.2. Zientzia-, teknologia- eta osasun-kulturarako konpetentziaren Derrigorrezko Bigarren Hezkuntzako 2. mailako konpetentzia mailen deskribapena . . . . .	83
4.4.3. Dimentsioetako adierazleak Derrigorrezko Bigarren Hezkuntzako 2. mailako konpetentzia maila bakoitzean . . . . .	84
4.4.4. Item liberatuen adibideak . . . . .	86

Sarrera





## 1. SARRERA

Oinarrizko Hezkuntzako curriculum a ezartzen duen urriaren 16ko 175/2007 Dekretuaren 36 artikuluan aipatzen den bezala, Ebaluazio Diagnostikoa egitearen helbururik behinena Lehen Hezkuntzako 4. mailako eta DBHko 2. mailako ikasleek oinarrizko kompetentzietan duten errendimenduari buruzko informazio fidagarria lortzea da.

Informazio hori jakinarazterakoan bi erronkari aurre egin behar zaie: alde batetik, lortutako emaitza azal dezaketen estandarrak finkatzeari, eta bestetik emaitzak hezkuntza komunitateari eta familiei helarazteari. Bigarren erronka hori, prozesuaren hedapenari eta gardentasunari laguntzeaz gain, ikastetxeetako hobekuntza planak bultzatzera bideratzen da. Plan horiek Ebaluazio Diagnostikoan lortutako emaitzetan oinarriturik abiarazi behar dira.

Ildo horretatik, dokumentu honek ikastetxeko txostenek baino informazio osoagoa eskaintzen du Lehen Hezkuntzako 4. mailako eta DBHko 2. mailako ikasleek oinarrizko kompetentzietan lortzen duten gaitasun mailari buruz. Helbururik garrantzitsuena ikastetxeetan hausnarketa bultzatzea da, hobekuntza planak garatu ahal izan ditzaten.

2008-2009 ikasturtean Ebaluazio Diagnostikoaren lehen aplikazioa gauzatu zen (aurrerantzean ED09). Ikaslearentzako eta ikastetxearentzako galdera-sortaz gain, ebaluazioaren probak hurrengo kompetentzia hauen ingurukoak izan ziren: Hizkuntza Komunikazioa, euskaraz eta gaztelaniaz, Matematika, eta Zientzia, Teknologia eta Osasun Kultura.





Zer dira  
konpetentzia mailak?






## 2. ZER DIRA KONPETENTZIA MAILAK?

Konpetentzia maila ikasleak ED09ko probetan erakutsi dituen ezagupenen, trebetasunen eta gaitasunen deskripzioari deitzen diogu. Erakutsitako gaitasunen konplexutasunaren arabera hiru maila bereizten dira: hasierako maila, erdi-maila eta maila aurreratua.

Hiru konpetentzia maila horiek lorpen estandarrak adierazten dituzte eta nazioartean onetsitako sistema batean oinarriturik finkatu dira.

Konpetentzia maila jakin batek ikasleak oinarrizko konpetentzia baten esparruan dituen ezagupenak, gaitasunak, trebetasunak... adierazten ditu, eta baita horiek egoera praktikoetan erabiltzeko duen eraginkortasuna ere.

Konpetentzia mailek ebaluazio diagnostikoko emaitzen azalpen zehatza eskaintzen dute, puntuazio huts batetik harantzakoa. Beraz, oso bailagarriak dira ikastetxeek iturri kontrastatu batetik ohi baino informazio hobea lor dezaten. Informazio



horren analisisian eta ikastetxeek berek bildutakoaren analisisian oinarriturik, ebaluatutako oinarritzko konpetentzietan emaitzak hobetzeko behar diren proposamenak, estrategiak eta baliabideak finkatu ahal izango dituzte ikastetxeek.

Ikasleek orain arte lortu dutena abiapuntu bezala harturik, ikastetxeek hezkuntza-alderdi onuragarriak sendotu eta hobetu ahal izango dituzte eta, horrekin batera, ikasle guztientzat hedatu, erronka errealistak identifikatu eta aurrerabiderako xedeak eta epeak finkatu. Gainera, Ebaluazio Diagnostikoan urtero-urtero parte hartzeari esker, informazio berria izango dute alderdi onuragarriak noraino sendotu diren eta hatutako neurriak eraginkorrak izan ote diren aztertu ahal izateko.

Ikastalde bat baino gehiago duten ikastetxeetan, ikastalde ezberdinetako emaitzen arteko konparazioak egin ahal izango dira eta, baita ere, antzeko ezaugarri sozio-ekonomikoak eta kulturalak dituzten beste ikastetxe batzuetako emaitzekikoak. Hartara, egindako ahaleginen eta garatutako estrategien eraginkortasuna egiaztatu ahal izango dute beste ikastetxe batzuekiko.

ED09 ebaluazioak eskaintzen duen banakako informazioa, irakasleek ikasle bakoitzari buruz duten informazioarekin batera, oso lagungarria izan daiteke ikastetxearentzat, ikasle guztien ikaskuntzen hobekuntza-xedeak finkatzerakoan. Horretarako, ikasle bakoitzaren beharrak kontuan hartu behar dira eta xedeak ikastetxe, familia eta ingurune ezberdinen ezaugarrietara egokitu. Ikasle bakoitzaren aurrerabideari dagokionez, helburu handinahia litzateke, eta zalantzarik gabe errealista, hasierako mailan dauden ikasleen kopurua murriztea, eta, aldi berean, maila altuagoan dauden ikasleei beren ahalmenak garatzeko eta maila aurreratura pasatzeko adore ematea.

Baina, oraindik norberaren hobekuntzaren arloari gagozkiolarik, banakako informazioa oso tresna erabilgarria izan daiteke familiak semea/alabaren oinarritzko konpetentziak hobetzeko duen konpromisoa sendotzeko.

Konpetentzia mailek oinarritzko osagai kualitatiboa dute, konpetentzia maila bakoitzean ikasleak, proban erakutsitakoaren arabera, zer egiten dakien eta zer egiteko gai izatera hel daitekeen deskribatzen baita. Adibidez, ikastalde bat Matematikarako konpetentzian maila aurreraturanzko bidean baldin badago, horrek esan nahi du maila horri dagozkion ezagupenak eta trebetasunak sakontzen eta zabaltzen ari dela eta, horrez gain, erdi-mailari dagozkionak bereganaturik dituela.

Mailen deskribapenak gaur egun indarrean dauden curriculumak eta, batez ere, ED09 probetan erabili diren itemak kontuan izanik egin dira.

Konpetentzia mailek badute dimentsio kuantitatibo bat ere, puntuazioen bidez adierazten dena. ED09ko emaitzek erreferentziatzko bi puntuazio ezberdin biltzen dituzte. Puntuazio horiek ebaketa-puntuak deitzen dira eta hurrengo grafikoan azaltzen dira:

### 1. grafikoa. Konpetentzia-maila hipotetikoak



Hortaz, konpetentzia maila bakoitza bi puntuazioren artean dago. Ebaketa-puntuak deitzen dira eta hiru mailak bereizten dituzte: hasierako maila, erdi-maila eta maila aurreratua. Horri esker, ikastetxe, ikastalde zein ikasle jakin batek behar diren neurriak har ditzake, lortutako puntuazioa kontuan harturik.

Beheko ebaketa-puntuak hasierako maila eta erdi-maila mugarriztatzen ditu; goiko ebaketa-puntuak, beste alde batetik, erdi-maila eta maila aurreratua bereizten ditu. Ebaketa-puntu horietako bakoitzak hurrengo mailan dagoen ikasle batek lortu duen gutxienezko puntuazioa adierazten du, puntuazio hori ikasleak ebazten jakin duen item bati baitagokio.

IET (Itemari Erantzunaren Teoria) puntuazioak erabiltzen dira, gaur egun nazioarte mailan osperik handiena dutenak baitira. Puntuazio horiek 250 puntuko eskala batean adierazten dira, 50 puntuko desbideratze tipikoarekin.

Probetan erabili ziren item guztiek oinarritzko konpetentzien berariazko alderdiak ebaluatzen zituzten. Hau da, ebaluatzen zituzten helburu guztiak Lehen Hezkuntzako 4. mailako eta DBHko 2. mailako ikasleentzako ikaskuntza desiragarritzat jo daitezke. Helburu batzuk sinpleagoak dira eta beste batzuk konplexuagoak, baina emaitzetatik ez da inolaz ere arrakasta edo porrot eskalarik ondorioztatu behar. Era berean, ez litzateke zuzena izango hasierako mailari lortutako ikaspenak, gaitasunak eta trebetasunak oinarritzkoak direla pentsatzea. Ildo horretatik, errepikatzea zilegi bazaigu, oinarritzko konpetentzien inguruan ebaluatutako guztia oinarritzkoa da.

Laburbilduz, Ebaluazio Diagnostikoko emaitzak hezkuntza komunitateari jakinarazteko sistema ulergarri bat hautatu da, argigarria eta ikaslearen ikaspenei buruzko hausnarketa bultzatzen duena. Hortaz, emaitzak ez dira ebaluazioaren bukaera izango –zigorreen edo titulua lortzean oinarritutako ebaluazio klasikoetan gertatzen den bezala–, eta tarteko etapa bihurtuko dira, ikastetxearen etengabeko hobekuntza prozesua berrikusteko aukera ematen dutenak.



Nola finkatzen dira  
konpetentzia mailak?







### 3. NOLA FINKATZEN DIRA KONPETENTZIA MAILAK?

Konpetentzia maila definitzea, eta batez ere mailak mugarriztatu dituzten ebaketa-puntuak finkatzea, oso lan konplexua da eta aldi berean garrantzitsua, haserako mailan, erdi-mailan eta maila aurreratuan egongo liratekeen ikasleen ehunekoa finkatzen baitu.

Konpetentzia mailak alde aurretik definitu dira, eta konpetentzia bakoitzaren garapen markoan azalduta daude. Horrela, ED09 ebaluazioaren prestakuntza aldi (2008-2009 ikasturtea) zailtasun maila ezberdinetako itemak egin ziren. Beraz, maila bakoitzari item batzuk lotzen zaizkio, eta aldi berean item horiek trebetasun, ezagutza eta gaitasun jakin batzuk ebaluatzen dituzte.

Teknikaren ikuspuntutik, ebaketa-puntuak finkatzeak aditu baten edo aditu talde baten epai teknikoa eskatzen du, prozesuaren objektibotasuna bermatzeko prozedura arautu batzuk erabili behar dituztelarik.

Lan hori egiteko metodologia ezberdinak daude. ISEI-IVEIren kasuan *Bookmark* metodologietako bat hautatu zen, SIMCEK<sup>1</sup> erabiltzen duena hain zuzen. *Bookmark* metodologiak nazioarteko ebaluaziorik garrantzitsuenetan eta herrialde askotako ebaluazio institutuetan erabiltzen dira. Gainera, ED09 ebaluazioaren proben ezaugarrietarako egokia zelako hautatu zen.

Lan talde ezberdinak eratu ziren, ebaluatu den konpetentzia bakoitzerako bat. Taldeetan aditu ezberdinek hartu zuten parte eta ebakidura-tarteak gomendatu behar zituzten. Ondoren, talde tekniko batek erabaki zituen behin betiko ebakidura-puntuak.

Prozesu guztia ISEI-IVEIk zuzendu zuen. Alde aurretik protokolo bat finkatu zen ebaketa-puntuak finkatu behar zituzten lan taldeen funtzionamendua arautzeko. Helburua prozesua estandarizatzea zen eta fase guztietan modu berean aplikatzea, horrela prozesuaren objektibotasuna bermatu ahal izateko.

2009ko irailean lau lan taldeak eratu ziren, konpetentzia bakoitzerako bat. Taldekide izateko gonbidapena itemen diseinuan eta egiaztatze lanetan parte hartu zuten adituei luzatu zitzaion eta baita zenbait kide berriri ere. Ondorioz, talde heterogeneoak sortu ziren Berritzeguneetako teknikariek, hezkuntzako ikuskariek, ebaluatutako irakasmailatan ziharduten irakasleek eta ISEI-IVEIko teknikariek osatutakoak. Bukieran, ISEI-IVEIko teknikari batek taldearen lanak biltzen zituen eta emaitzak —ebaketa-tarteak— prozesuaren koordinatzaileari helarazten zizkion.

Betebeharraren helburuak aurkeztu ondoren eta lan-dinamikari buruzko prestakuntza labur baten ondoren, taldeak eratu ziren eta bakoitzak bere aldetik egin zuen lana. Taldekide guzti-guztiek idatziz onartu zuten proben edukiei eta lan saioen garapenari buruzko isilpekotasuna gordetzea. Taldeen lana etapa hauetan banatu zen:

<sup>1</sup> SIMCE ([www.simce.cl](http://www.simce.cl)) Txileko Hezkuntza Ministerioak duen ikaskuntzen emaitzen Ebaluazio Sistema Nazionala da. Esperientzia luzea du ikasleen errendimendua ebaluatzen arlo eta hezkuntza-maila ezberdinetan zentsuko proben bidez.

1. Konpetentzia-markoaren egitura eta bertan jasotako konpetentzia mailak ezagutzea. Oinarrizko kontzeptuak: "konpetentzia mailak" eta "ebaketa-puntua".
2. Erabilitako proba(k) irakurtzea eta aztertzea. Fase honetan taldekideek zehatz-mehatz ezagutu zuten itemen edukia.
3. Itemen analisi berria; oraingoan goranzko zailtasun hurrenkeran —errazenetatik zailenetara—, baina puntuazio zehatzik gabe. Item bakoitzak ebaluatzen zuen dimentsioari eta azpi-konpetentziari buruzko informazio zehatza eman zitzaizen taldekideei, itemaren berariazko helburuarekin eta beste alderdi interesgarri batzuekin batera. Hurrengo galdera honi erantzun behar zioten, nork bere aldetik: Zein itemetaraino erantzuteko gai izango litzateke hasierako mailan dagoen ikaslea? Galdera errepikatu egiten zen erdi-mailan dagoen ikasle bat zein itemetaraino erantzuteko gai izango litzatekeen finkatzeko.
4. Alde batetik, hasierako mailaren eta erdi-mailaren arteko ebaketa puntua eta, bestetik, erdi-mailaren eta maila aurreratuaren artekoa proposatzea.
5. Taldekide guztiek egindako proposamenak elkartrukatzea, arrazoitzea eta eztabaidatzea.

Prozesua hiru txandatan zehar luzatu zen ebaketa-tartea definitu arte. Helburua ez zen item jakin bati buruzko adostasun osoa lortzea (puntuazio zehatz bat), hots, bi mailen arteko mugarrria finkatzea (aurreko mailako ikasle gehienek seguruenerik egoki erantzuten jakingo ez luketen itema). Helburua, aitzitik, item batzuen tartea hautatzea zen: taldeko adituen ustez, oinarrizko konpetentzian ebaluatutako gaitasunen zailtasunean aldaketa edo jauzi garrantzitsua adierazten zuen tartea, hain zuzen ere. Tarte hori *Bookmark* prozeduran konfiantza-tartea deitzen da.

Hala eta guztiz ere, talde bakoitzeko hausnarketa prozesuari laguntzeko, taldeko arduradunak txanda bakoitzean taldekide bakoitzak seinalatutako itemen mediana kalkulatu zuen.

Taldekideek beren lan esperientzian oinarriturik egin zituzten ebaketa-puntuetarako hasierako proposamenak. Horregatik esan liteke proposamen horietan intuizio-oinarri handia zegoela.

Lan saioan zehar, une jakin batean, behin ebaketa-puntuetarako lehen proposamenen txanda egin ondoren, zenbait kasutan bigarrenaren ondoren, taldeko arduradunak itemen puntuazioa banatu zien taldekideei, erabakiak hartzeko laguntza bat izan zezaten. Itemen emaitzak IET puntuazioetan eta erantzun zuzenen ehunekoetan banatu zitzaizkien, azken horiek emaitzen analisiaren teoria klasikoetan egiten den bezala. Puntuazioen jakinarazpena geroko uztea estrategia baten ondorioa zen: itemen emaitza estatistikoak ezagutzeak adituen iritzia baldintzatu edo kutsatu ez zezakeen.

Prozesu guztia dokumentatu zen, ez bakarrik lan taldeen bukaerako proposamenak. Ondoren, oinarrizko konpetentzia bakoitzerako behin betiko ebaketa-puntuak zeintzuk izango ziren talde teknikoak erabaki zuen, informazio hori kontuan izanik.

Laburbilduz, *Bookmark* prozedurak analisi estatistikoek ebaketa-puntuak finkatzeko erabaki garrantzitsuan duen eragina nolabait argitzen du, eta hezkuntza munduko pertsona ezberdinen esperientzian oinarritutako jakintza biltzen du: ebaluatutako irakasmaitetako ikasleekin lan egiten dutenak, irakasleak aholkatzen eta prestatzen dituztenak, indarrean dauden curriculumak ezagutzen dituztenak, ikasgeletako aniztasuna eta beste hainbat arazo ezagutzen dituztenak eta abar.

Arestian deskribatutako prozesuaren ondorio bezala, hiru konpetentzia maila finkatu dira (hasierakoa, erdi-maila eta aurreratua). Maila horiek ez dira muga estatistiko hutsak, maila bakoitzean dauden ikasleen gaitasunak ulertzen laguntzen duten adierazle garrantzitsuak baizik.

Oro har, ikasleen ehuneko handienak lor ditzakeen trebetasunak erdi-mailari dagozkio. Maila aurreratua (erronka-maila ere deitua), berriz, ikasleen ehuneko txikiago batek bakarrik lortzen du.